

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-1343

38/2001 DEKRETUA, otsailaren 27ko, Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia kontrola burutzeko bitartekoak ezartzen dituena.

Metrologia kontrola guztiz garrantzitsua da kontsumitzaile eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko eta horien osasuna nahiz interes ekonomikoak babesteko. Horrek esan nahi du ezinbestekoa dela neurketa-sistema, baliabide, aparailu eta tresnen funtzionamendua kontrolatzeko sistema eraginkor bat ezartzea.

Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute era horretako kontrolak egitea. Eskaera horri erantzuteak eta kontrola behar bezala burutu eta garatzeak espezializazio eta teknifikazio handia eskatzen duenez, Administracioak eskuhartze administratiborako sistema bat baino gehiago erabili beharra du, hau da, administracioak berak bakarrik eta zuzenean egin dezake eskuhartzea edo sistema mistoak ere erabili ahal ditu horretarako. Sistema mistoak erabiltzeko, baimenen teknikaz gain, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak zerbitzu publikoak kudeatzeko ematen dituen aukeretatik edozein erabil dezake administracioa.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren abenduanen 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 12. artikuluko 5. paragrafoak ezartzen du autonomia erkidego honek eskuema duela pisu eta neurrien arloko Estatuko lege-dia burutzeko.

Metrologiari buruzko martxoaren 18ko 3/1985 Legearen 6. artikuluak dio metrologia arloan aplikatu beharreko objektu eta elementuez gain, errejelamendu bidez ezartzen diren neurketak ere Estatuaren metrologia kontrolaren menpe daudela.

Bestalde, 3/1985 Legean bertan eta legea garatzen duten xedapenetan ezarritako eta gai honen gaineko jurisprudentzia konstituzionala (100/1991 eta 236/1991 K.A.E.) kontuan hartuta, autonomia erkidego honi dagozkio aurreko lerroaldian adierazitako metrologia kontrolaren gaineko zereginak burutzea. Era berean, autonomia erkidego honi dagozkio arlo honekako eskumena gauzatzeko berezkoak diren zereginak burutzea, bai eta honako hauek ere:

- 3/1985 legearen 7.1 artikuluau jasotako metrologia kontroleko fase guztiak.
- Metrologia egiaztapenerako laborategiak habilitatzea.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-1343

DECRETO 38/2001, de 27 de febrero, por el que se establecen los medios para la ejecución del control metrológico en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El control metrológico tiene una importancia decisiva para garantizar la seguridad, la protección de la salud y los intereses económicos de los consumidores y usuarios, lo que implica la necesidad de establecer un eficaz sistema de control del funcionamiento de los diversos instrumentos, aparatos, medios y sistemas de medida, tanto de los que sirven para medir como para pesar y contar.

La ejecución y desarrollo del referido control, atendiendo a las cada vez más crecientes demandas ciudadanas, exige una especialización y tecnicificación que obligan a la Administración a acudir a sistemas diferentes de intervención administrativa, pasando de la intervención directa y única de la Administración a sistemas mixtos, utilizando tanto la técnica autorizatoria como cualquiera de las posibilidades que el ordenamiento jurídico vigente ofrece en materia de gestión de servicios públicos.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 12, punto 5, de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, esta Comunidad Autónoma es competente para la ejecución de la legislación del Estado en materia de pesas y medidas.

La Ley 3/1985, de 18 de marzo, de metrología, establece en su artículo 6 que están sujetos al control metrológico del Estado tanto los objetos y los elementos de aplicación en metrología, como las mediciones que reglamentariamente se determinen.

Por otra parte, según lo establecido en la misma Ley, en sus disposiciones de desarrollo y de acuerdo con la jurisprudencia constitucional existente sobre la materia (S.T.C. 100/1991 y 236/1991), corresponden a esta Comunidad Autónoma las funciones que en relación con el control metrológico se señalan en el párrafo anterior, así como todas aquellas funciones que deban ser consideradas inherentes al carácter ejecutivo de la competencia y, en particular, las siguientes:

- Todas las fases de control metrológico con el contenido del artículo 7.1 de la referida Ley.
- La habilitación de laboratorios de verificación metrológica.

- Metrologia Kontroleko Erregistroa kudeatzea.
- EEE (Europako Ekonomia Erkidegoa) metrologia kontrola.

Horren guztiaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoa da ondoko errege dekretuetan aurreikusitako eskumenak gauzatzeko titularra: irailaren 11ko 1616/1985, 1617/1985 eta 1618/1985 Errege Dekretuak eta ekainaren 10eko 597/1988 Errege Dekretua.

Azkenik, kontuan izan behar dugu pisu eta neurrien arloko eskumenak gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa dela metrologia kontrola behar bezala burutu ahal izateko moduko antolaketa-egitura bat eratzea lehendabizi; izan ere, metrologia kontrolak izaera erabat teknikoa baitu, eta azken finean, kontrol hori behar bezala burutzea da Dekretu honen xedea.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko otsailaren 27an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

#### I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

##### *1. artikulua.*— Xedea eta ezarpen-eremua.

1.— Dekretu honen xedea da neurketa sistema, baliabide, aparailu eta tresnei aplikatu behar zaien metrologia kontrolerako araubidea ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoak duen eskumen esparruaren barruan, baldin eta arauren batek hala agintzen badu eta indarrean dagoen araubidean aurreikusitako neurketak badira.

2.— Era berean, Dekretu honek metrologia arloan indarrean dagoen legedia gauzatu ahal izateko behar diren bitartekoak, metodoak eta tresnak arautzen ditu.

3.— Dekretu honen ezarpen eremutik kanpo daude indarrean dagoen legediak udal korporazioei esleitzen dizkien metrologia Kontroleko eginkizunak. Eginkizun horiek azkenen antolamendua egiteari eta kontsumitzai-leak babesteari buruzkoak izan ohi dira.

4.— Dekretu honetan aurreikusitako ondorioetarako, industria gaietarako organo eskumenduntzat joko da sailaren egitura organikoari buruzko arauan jasota dagoen organoa.

##### *2. artikulua.*— Metrologia kontrola.

1.— Industria gaietarako organo eskumendunak egingo duen metrologia kontrolak honako jarduerak hartzen ditu:

- a) Modeloa onartzea.
- b) Jatorrizko egiaztapena egitea.
- c) Konponketa edo aldaketaren baten osteko egiaztapena egitea.

- La gestión del Registro de Control Metrológico.
- El control metrológico CEE.

En consecuencia, corresponden a la Comunidad Autónoma del País Vasco la titularidad de las competencias ejecutivas previstas en los Reales Decretos 1616/1985, 1617/1985 y 1618/1985, todos de 11 de septiembre, así como las previstas en el Real Decreto 597/1988, de 10 de junio.

Por último, debemos tener en cuenta que el ejercicio de las competencias ejecutivas en materia de pesas y medidas exige la previa articulación de una estructura organizativa capaz de realizar satisfactoriamente una función de tan marcado carácter técnico como es de control metrológico, fin este al que responde el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 27 de febrero de 2001,

#### DISPONGO:

#### CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

##### *Artículo 1.*— Objeto y Ámbito de aplicación.

1.— El presente Decreto tiene por objeto el establecimiento del régimen de control metrológico aplicable, dentro del ámbito competencial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a todos los instrumentos, aparatos, medios y sistemas de medida, en los casos en los que así se disponga por una norma, así como a las mediciones previstas en la reglamentación vigente.

2.— Así mismo, en el presente Decreto se regulan los medios, métodos e instrumentos necesarios para la ejecución de la legislación vigente en materia de metrología.

3.— Quedan fuera del ámbito de aplicación del presente Decreto las funciones de control metrológico que, en relación con la ordenación de mercados y protección de los consumidores, la legislación vigente atribuya a las Corporaciones Locales.

4.— A los efectos previstos en el presente Decreto se entenderá por órgano competente en materia de industria, aquel que resulte serlo de acuerdo con la correspondiente norma reguladora de la estructura orgánica.

##### *Artículo 2.*— Control metrológico.

1.— El control metrológico que se ejercerá por el órgano competente en materia de industria comprendrá las siguientes actuaciones.

- a) La aprobación del modelo.
- b) La verificación primitiva.
- c) La verificación después de reparación o modificación.

- d) Aldian aldiko egiaztapena egitea.  
e) Zaintza eta ikuskatzea.

2.– Indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, ondoko organo hauen zeregina izango da metrologia kontrola egitea eta era horretako kontrola eskatzen duten zaintza eta ikuskatze zereginak egitea:

- a) Industria gaietarako organo eskumendunak zuzenzuzenean egingo ditu.  
b) Industria gaietarako organo eskumendunak zeharka egingo ditu, eta horretarako, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak zerbitzu publikoak kudeatzeko ematen dituen aukeretatik edozein erabiliko du.  
c) Baimendutako egiaztapen entitateen bitartez edo zeregin horiek beregain hartzten dituzten ofizialki baimendutako laborategien bitartez egingo dira.

### *3. artikulua.– Metrologia kontroleko erregistroa.*

1.– Metrologia kontrolari buruzko legearen 8. artikuluak dioenaren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan industria gaietarako organo eskumendunaren zeregina izango da metrologia kontrolerako erregistroaz arduratzea, erregistroa kudeatzea eta kontrolatzea; izan ere organo horrek du erregistroan inskripzioak egiteko eta ezesteko ahalmena, eta berdin dio zerk eragiten duen ezestapena. Horrez gain, inskripzioak berresteko, aldatzeko edo baliogabetzeko ahalemena era bau du.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan neurketa-sistema, baliabide, aparailu eta tresnak fabrikatu, importatu, merkaturatu, konpondu, errentan eman edo egiaztatu nahi dituzten pertsona edo entitateek metrologia kontroleko erregistroan inskribatzeko baimen eskatu beharko dute lehendabizi, bai eta inskripzioa egin ere.

### *4. artikulua.– Ofizialki baimendutako egiaztapeneko laborategiak eta entitateak.*

1.– Industria gaietarako organo eskumendunaren baimen eskuratzenten duen edozein entitate publiko zein pribatu izango da metrologia kontroleko zereginak burutzeko gai. Baimena lortzeko, entitate publiko zein pribatu horiek estatuko arauetan eta Dekretu honetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

2.– Beraz, ondorio horietarako, Metrologia egiaztapeneko laborategiak habilitatzeari buruzko irailaren 11ko 1617/1985 Errege Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta, laborategi ofizialtzak joko dira neurketa-sistema, baliabide, aparailu eta tresnen jatorrizko egiaztapena egiteko baimena duten laborategi fabrikatzaleak edo importatzaileak. Bestalde, Dekretu honetako 10. artikuluan ere hala dago jasota.

3.– Aurreko idatz-zatian aurreikusi gabe geratu diren gainontzeko eginkizunak industria gaietarako organo eskumendunak berak burutuko ditu zuzenean, edo metrologia egiaztapenerako entitateen bidez burutuko

- d) La verificación periódica.  
e) La vigilancia e inspección.

2.– Las actuaciones derivadas de este control metroológico, incluida la vigilancia e inspección que, en su caso, comporte este tipo de control, podrán ser ejercidas, en los términos establecidos en la regulación vigente:

- a) Directamente por los órganos competentes en materia de industria.  
b) Indirectamente, a través de cualquiera de las formas de gestión de servicios públicos previstas en la legislación vigente.  
c) Mediante entidades de verificación autorizadas o laboratorios oficialmente autorizados que asuman su ejecución.

### *Artículo 3.– Registro de Control Metrológico.*

1.– A efectos de lo que dispone el artículo 8 de la Ley de metrología, la gestión, control y llevanza del Registro de control metrológico, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, corresponderá al órgano competente en materia de industria, órgano facultado tanto para la inscripción como su para su cancelación cualquiera que sea la causa, así como para los actos de ratificación, modificación o revocación.

2.– Las personas o entidades que se propongan fabricar, importar, comercializar, reparar ceder en arrendamiento, verificar los instrumentos, aparatos, medios y sistemas de medida, dentro del ámbito territorial del País Vasco, deberán solicitar y obtener previamente su inscripción en el referido Registro de control metrológico.

### *Artículo 4.– Laboratorios y entidades de verificación metrológica oficialmente autorizados.*

1.– Estarán capacitados para ejercer funciones de verificación en el ámbito de la metrología, todas aquellas entidades de carácter público o privado que, cuenten con la correspondiente autorización emitida por el órgano que resulte competente en materia de industria, conforme a las condiciones establecidas en la correspondiente norma de ámbito estatal, así como, las establecidas en el presente Decreto.

2.– A estos efectos, se considerarán laboratorios oficiales, los laboratorios de fabricantes o importadores que, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 1617/1985, de 11 de septiembre, sobre habilitación de Laboratorios de Verificación Metrológica, estén autorizados para efectuar la verificación primitiva de instrumentos, medios o sistemas de medida, de acuerdo con lo establecido en el artículo 10 del presente Decreto.

3.– El resto de las funciones no previstas en punto anterior podrán ser ejercidas, directamente por el órgano competente en materia de industria o a través de entidades de verificación metrológica, que se habiliten o

ditu. Bestalde, Metrologia egiaztapenerako entitate horiek habilitatzeko edo baimentzeko, Dekretu honetan eta Dekretu hau garatzen duten arauetan ezarritakoa bete beharko da.

4.- Egiaztapeneko laborategi edo entitate bati baimena ematen dion ebazena ezinbestean argitaratu beharko da argitaratu beharreko aldizkari ofizialetan.

**5. artikulua.**- EEE (Europako Ekonomia Erkidegoa) metrologia kontrola.

Autonomia erkidego honetan industria gaietarako eskumena duen organoak burutu beharko ditu dira EEE metrologia kontrola burutzeko eginik zuten guztiak. Bestalde, indarrean dauden xedapenetan ezarrita dago zeintzuk neurketa metodo, elementu edo tresna kategoriori egin behar zaien kontrola.

**6. artikulua.**- Zaintza eta ikuskatzea.

Indarrean dagoen legedian ezarrita dagoena kontuan hartzen badugu, neurriak zuen egon daitezen eta zehatzak izan daitezen planifikatu eta burutuko dira neurriak zaintzeko eta ikuskatzeko zereginak. Era berean, neurketa tresnen gaineko kontrola herritarren osasun eta segurtasuna babesteko lagungarria izango da, bai eta kontsumitzaleen kalterako izaten den iruzurak eragoteko ere.

## II. KAPITULUA

### METROLOGIA KONTROLEKO ERREGISTROA

**7. artikulua.**- Metrologia kontroleko erregistroari ezarriko zaion araubidea.

1.- Estatuan edo Europako Batasunean indarrean dauden xedapenetan ezarritakoa kontuan hartuta arautuko da Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia kontroleko erregistroa.

2.- Industria gaietarako organo eskumendunak ezarri ahal izango du erregistroan inskripzioa egiteko baldintzak eta eskakizunak bete direla egiztatzeko zeintzuk frogagiri aurkeztu behar diren eta zein prozedura erabiliko den.

**8. artikulua.**- Espainiako Metrologia Zentroarekiko lankidetza.

Espainiako Metrologia Zentroarekin komunikazio-harreman iraunkorra izango da lankidetza ahalik eta onena izan dadin eta informazio trukaketa ahalik eta errazena izan dadin. Bestalde, dagokion arauak ezarriko du komunikazio-harremanetarako zein sistema, metodo eta aldiotasun erabiliko diren.

Ondorio horietarako, erregistroan inskribatutako merkataritza enpresen eta entitateen zerrenda bidaliko da Espainiako Metrologia Zentrora. Zerrenda horretan enpresa eta entitate horien datuak eta inskripzio zenbakia ere jasoko dira. Bestalde, araudi bidez ezarriko da zerrenda nola eta zenbatero bidali behar den.

autoricen en función de lo establecido en el presente Decreto y en sus normas de desarrollo.

4.- La resolución que autorice un laboratorio o entidad de verificación deberá publicarse en los correspondientes Boletines Oficiales.

**Artículo 5.**- Control metrológico CEE.

Corresponde al órgano competente en materia de industria de esta Comunidad Autónoma, el ejercicio de todas las funciones relativas al control metrológico CEE, con respecto a todas las categorías de instrumentos, elementos o métodos de medida que deban ser objeto de este tipo de control, de acuerdo con lo establecido en las disposiciones vigentes.

**Artículo 6.**- Vigilancia e Inspección.

Las funciones de vigilancia e inspección en los términos establecidos en la legislación vigente, se planificarán y ejercerán con el fin de velar por la corrección y exactitud de las medidas, colaborando, a través del control de los instrumentos de medida, a la protección de la salud y seguridad ciudadana, y evitar los fraudes en perjuicio de los consumidores.

## CAPÍTULO II

### REGISTRO DE CONTROL METROLÓGICO

**Artículo 7.**- Régimen aplicable al registro de control metrológico.

1.- En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el registro de control metrológico se regirá por lo establecido en las disposiciones vigentes de ámbito estatal o comunitario.

2.- El órgano competente en materia de industria, podrá establecer el procedimiento y la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos para la correspondiente inscripción.

**Artículo 8.**- Colaboración con el Centro Español de Metroología.

Con objeto de lograr la máxima colaboración y facilitar el intercambio de información se mantendrán vínculos estables de comunicación con el Centro Español de Metroología de acuerdo con los sistemas, métodos y periodicidad que se establezca en la correspondiente norma.

A estos efectos, se remitirá al Centro Español de metrología, en la forma y periodicidad que se establezca, la relación de empresas y las entidades mercantiles inscritas, con indicación de sus datos y número de inscripción.

**III. KAPITULUA**  
**OFIZIALKI BAIMENDUTAKO METROLOGIA**  
**EGIAZTAPENERAKO LABORATEGIAK ETA**  
**ENTITATEAK.**

**9. artikulua.**— Eginkizunak.

1.— Behar bezala baimendutako laborategiek Estatuko legedian ezarritako eginkizunez arduratuko dira, eta Estatuko legedian ezarritako araubide juridikoaren menpe egongo dira.

2.— Behar bezala baimendutako metrologia egiazta-penerako entitateek Dekretu honetako 11. artikuluan ezarritako eginkizun edo jarduera guztiak burutu ahal izango dituzte.

Era berean, eta Dekretu honetako 14. artikuluan eza-rritakoa kontuan hartuta, metrologia kontroleko egiaz-tatze ofizialari dagozkion eginkizunak ere burutu ahal izango dituzte, bai eta administrazio eskumendunak be-rariaz agindutako bestelakoak ere.

3.— Industria gaietarako organo eskumendunak era-bakitzenten badu halako edo bestelako eginkizunak zer-bitzu publikoak zeharka kudeatzeko araubidearen ara-bera burutu behar direla, metrologia egiaztapeneko en-titateek ezin izango dituzte eginkizun horiek burutu, hala baitago jasota Dekretu honetako IV. kapituluan.

**10. artikulua.**— Metrologia egiaztapeneko laborate-giak.

1.— Metrologia egiaztapeneko laborategiak izango dira neurketa sistemek, bitarteko edo tresnen jato-trizko egiaztapena egiteko habilitazioa duten laborete-gi fabrikatzale edo importatzaleak. Horrez gain, labo-rategi horiek beste ezaugarri hauek izan ditzakete:

— Egiaztapeneko laborategi nagusiak izan daitezke. Laborategi nagusiak badira, beste entitate batzuen neurketa tresnak egiaztatutu beharko dituzte, entitateren batek horrelakorik eskatuz gero.

— Egiztapeneko laborategi laguntzaileak izan daitezke. Era honetako laborategiek laborategiaren beraren ja-bea den entitatearen neurketa tresnak baino ezin izango dituzte egiaztatutu. Salbuespen moduan, kanpoko tres-nen egiaztapena egiteko baimen eman ahal izango zaie.

2.— Laborategi horiei baimenak emateko araubidea arlo horretako Estatuko arauan ezarrita dago.

**11. artikulua.**— Metrologia egiaztapeneko entita-teak.

Industria gaietarako organo eskumendunak ikusten badu burutu beharreko eginkizunaren espezialitateak, eduki teknikoak eta eskuragarri dauden bitartekoek es-katzen dutela eginkizun hori metrologia egiaztapene-ko entitate batek burutu behar duela, Industria ga-ieta-rako organo eskumendunak honako eginkizunak bu-rutzeko habilitatu ahal izango ditu metrologia egiaz-tapeneko entitateak:

**CAPÍTULO III**  
**LABORATORIOS Y ENTIDADES DE**  
**VERIFICACIÓN METROLÓGICA OFICIALMENTE**  
**AUTORIZADOS.**

**Artículo 9.**— Funciones.

1.— Los laboratorios debidamente autorizados ejer-cerán las funciones expresamente previstas en la legis-lación estatal, quedando sometidos al régimen jurí-di-co previsto en la misma.

2.— Las entidades de verificación metrológica debi-damente autorizadas podrán ejercer, todas las funciones o actuaciones previstas el artículo 11 del presente De-creto.

Así mismo, podrán ejercer funciones de Certificación Oficial de Control Metrológico, de acuerdo con lo es-tablecido en el artículo 14 de este Decreto, así como todas aquellas funciones que expresamente les sean en-comendadas por la Administración competente.

3.— En los términos establecidos en el Capítulo IV del presente Decreto quedan excluidas como función de las entidades de verificación metrológica, todas aque-las funciones que el órgano competente en materia de industria determine que deban ser ejercidas en régimen de gestión indirecta de servicios públicos.

**Artículo 10.**— Laboratorios de verificación metroló-gica.

1.— Serán laboratorios de verificación metrológica, los laboratorios de fabricantes o importadores, que es-tén habilitados para efectuar la verificación primitiva de instrumentos, medios o sistemas de medida. Estos laboratorios, a su vez, podrán tener la condición de:

— Laboratorios principales de verificación, en cuyo caso también deberán verificar los instrumentos de me-dida de otras entidades que se lo soliciten.

— Laboratorios auxiliares de verificación que sola-mente podrán verificar los instrumentos de medida de la entidad propietaria del laboratorio, salvo que excepcionalmente se les autorice para la verificación externa.

2.— El régimen de autorización de estos laboratorios será el establecido en la correspondiente norma de ám-bitu estatal.

**Artículo 11.**— Entidades de Verificación Metrológi-ca.

El órgano competente en materia de industria, en aquellos supuestos en los que, atendiendo al contenido técnico, disponibilidad de medios y especialidad de la función a desempeñar, considere más procedente su ejecución a través de entidades de verificación metrológi-ca, podrá habilitar a este tipo de entidades para el de-sempeño de las siguientes funciones:

– Konponketa edo aldaketaren baten osteko egiaztapena egitea.

– Aldian aldiko egiaztapena egitea.

– Zaintza eta ikuskatze eginkizunak burutzea.

**12. artikulua.**— Metrologia egiaztapeneko entitateek baimentzeko araubidea.

1.– «Metrologia egiaztapeneko entitate» izaera eskuratu nahi duten entitateek erkidego honetako industria gaietarako organo eskumendunari aurkeztu beharko diote eskabidea, eta Dekretu honetan ezarrirako eran egin beharko dute eskabidea. Horretarako, honako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

– Egiaztapenak egiteko ardura izango duen pertsonal tekniko eta kualifikatua dutela.

– Egiaztapen entseiuak egiteko behar diren gailuak eta bitartekoak dituztela eta egiaztatu nahi diren tresnei dagokien neurri mailaren araberakoak direla.

– Egiaztatu nahi dituzten trenentzako entseiu-procedura egokiak dituztela.

– Behar bezala egiaztatutako edo ziurtatutako kalitate-sistema dutela.

2.– Aurreko idatz-zatian eskatutako dokumentazioaz gain, baimen eskatzaileek egiaztatu beharko dute haien jarduerari dagokion erantzukizun zibila estalita dute-la. Horretarako, hogeita bost milioi pezetako asegurupoliza bat izan beharko dute ezbeharrengatik. Zenbateko hori aldian-aldean eguneratuko da autonomia erkidego honetako kontsumo-prezioen indize ofizialaren arabera.

3.– Baimenetan adierazi beharko da zeintzuk egiazkun edo kontrol burutzeko eman den baimena, bai eta baimen horren ezarpen eremuan zein edo zeintzuk apainailu sartzen diren.

4.– Egiaztapeneko baimenaren epea 5 urtekoa izango da, eta epe hori bukatu aurretik berritu beharko da. Betalde, baimena emateko kontuan hartu ziren baldintzak eta betekizunak aldatzen badira, ezinbestekoa izango da horren berri ematea aldatzen diren unean bertan.

**13. artikulua.**— Beste administrazio publiko batzuek baimendutako laborategiak.

1.– Industria gaietarako organo eskumenduna ardu ratuko da «ofizialki baimendutako egiaztapeneko labo rategi» izateko baldintza guztiak betetzen dituztzen eta autonomia erkidego honetan jardun nahi duten entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituztzen jardueren jarraipena egiteaz eta jarduerok kontrolatzearaz. Bestalde, berdin izango dio zein organok baimendu dituen entitate horiek.

– Verificación después de reparación o modificación.

– Verificación periódica.

– Funciones de vigilancia e inspección.

**Artículo 12.**— Régimen de autorización de las Entidades de Verificación Metrológica.

1.– Todas aquellas entidades que pretendan obtener la condición de «Entidad de Verificación Metrológica», deberán solicitarlo ante el órgano competente en materia de industria, de esta Comunidad, en los términos establecidos en el presente Decreto, debiendo presentar la documentación en la que se acredite que reúnen los siguientes requisitos y condiciones:

– Que dispongan del personal técnico, cualificado y responsable, para la realización de las verificaciones.

– Que dispongan de los dispositivos y medios necesarios para la realización de los ensayos de verificación, en los rangos de medida para los que solicitan la autorización.

– Que dispongan de los procedimientos de ensayo adecuados para los instrumentos que pretenden verificar.

– Que dispongan de un sistema de calidad debidamente certificado o acreditado.

2.– Además de lo establecido en el punto anterior, se deberá acreditar tener cubierta la responsabilidad civil derivada de su actuación, mediante una póliza de seguro por un importe de veinticinco millones de pesetas por siniestro. Esta cuantía se actualizará periódicamente en función del Índice Oficial de Precios al Consumo de esta Comunidad Autónoma.

3.– Las autorizaciones expresarán el tipo de función o control para los que se autoriza, así como, el tipo de aparato o aparatos incluidos dentro de su ámbito de actuación.

4.– La autorización de verificación se otorgará por un plazo de duración de 5 años, debiendo renovarse con anterioridad a su vencimiento, sin perjuicio de la obligación de comunicar, en el momento en el que se produzca, cualquier variación de los requisitos y condiciones que sirvieron de base para su autorización.

**Artículo 13.**— Laboratorios autorizados por otras Administraciones Públicas.

1.– El órgano competente en materia de industria, efectuará, el seguimiento y control de las actuaciones en esta Comunidad Autónoma de todas aquellas entidades que reúnan la condición de «laboratorios de verificación metrológica oficialmente autorizados» y que pretendan ejercer sus funciones en el territorio de esta Comunidad Autónoma, independientemente del órgano que los haya autorizado.

2.– Laborategiren batek laborategi ofizialaren izaera badu, eta izaera hori Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko organo eskumendun batek emandako baime-naren bidez eskuratu badu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan jardun nahi badu, guzti horren berri eman beharko du lehendabizi. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Ofizialki baimenduta daudela dioen administra-zio-baimena.

b) Laborategiareng jatorrizko tokian industria gaie-tarako eskumena duen organoak luzatutako egiaztagiri-a. Egiaztagiri horrek jaso beharko du laborategiak met-rologia arloan burututako eginkizunetan egindako arau-haustea eta laborategiari ezarritako zigorrak, bal-din eta halakorik gertatu bada.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineke Zergaren alta-agiria. Bertan adierazi beharko da laborategiak zein lurrall-de eremuan jardun dezakeen.

3.– Eskabidea aurkeztu eta hilabete igaro ostean, baimen-eskatzaileak ez badu idatziz ezezkorik jaso, horrek esanahi du Euskal Autonomia Erkidegoan jardun dezakeela.

**14. artikulua.**– Egiaztapeneko entitateen ziurta-pen-eginkizunak.

Ofizialki baimendutako entitateek egiaztapen, ikus-katze eta kontrolari buruzko txostenak egiteaz gain, in-darrean dagoen legediak egiaztapen ofizialaren arloan administrazio publikoari esleitzen dizkion eginkizunak ere burutu ahal izango dituzte.

Ziuratze-eginkizunak burutzeko, autonomia erkidego honetan industria gaietarako eskumena duen organoak emandako idatzizko baimena beharko da. Baimena lortzeko, eskatzaileek egiaztagatu beharko dute si-nadurak identifikatzeko sistema egokia dutela, erantzu-kizunak direla-eta.

#### IV. KAPITULUA

#### EGIAZTAPENAK BURUTZEA METROLOGIA ZERBITZUAREN ZEHARKAKO KUDEAKETA BIDEZ

**15. artikulua.**– Zerbitzu publikoen zeharkako ku-deaketaren bidez burutuko diren eginkizunak.

Industria gaietarako organo eskumendunak zehaztu-tako du zeintzuk aparailu edo elementu eta horien gai-nean burutuko beharreko zeintzuk eginkizun kontro-latuko diren zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa-ren araubideari jarraituz. Eginkizun horiek zehazteko orduan, honako irizpideak hartuko dira kontuan: zer-bitzu ahalik eta era eraginkorragoan ematea eta apa-railuen titularren eta kontsumitzale eta erabiltzaileen interes ekonomikoak babestea.

**16. artikulua.**– Zerbitzu publikoa kudeatzeko arau orokorrak.

2.– A los únicos efectos de control y seguimiento de actuaciones, los laboratorios que tengan la condición de oficiales, en virtud de la autorización emitida por un órgano competente de fuera de esta Comunidad Autónoma, y que pretendan ejercer sus funciones en el territorio de ésta, deberán comunicarlo, con carácter pre-vio, presentando la siguiente documentación:

a) Autorización administrativa por la que se les re-conoce la condición de oficialmente autorizados.

b) Certificado, obtenido del órgano competente en materia de industria del lugar de procedencia en el que se haga referencia a las posibles sanciones por infraccio-nes derivadas del ejercicio de sus funciones en el cam-po de la metrología.

c) Alta en el Impuesto de Actividades Económicas con determinación del ámbito territorial de actuación.

3.– Se entenderá que no hay oposición a su actua-ción en el ámbito de esta Comunidad Autónoma si no hay decisión expresa en el plazo de un mes contado des-de su solicitud.

**Artículo 14.**– Funciones de certificación de las en-tidades de verificación.

Las entidades oficialmente autorizadas, además del ejercicio de la emisión de los informes de verificación, inspección o control, podrán realizar las funciones de certificación oficial que la legislación vigente atribuye a la Administración Pública.

Para el ejercicio de funciones de certificación debe-rán contar con la correspondiente autorización expresa emitida por el órgano competente en materia de industria de esta Comunidad Autónoma. Para su obtención se deberá acreditar que cuentan con un sistema de iden-tificación de firmas a los efectos de responsabilidades.

#### CAPÍTULO IV VERIFICACIÓN A TRAVÉS DE GESTIÓN INDIRECTA DEL SERVICIO DE METROLOGÍA

**Artículo 15.**– Funciones que se ejercerán mediante régimen de gestión de servicio público.

El órgano competente en materia de industria de-terminará aquellos aparatos o elementos, así como, aquellas funciones que con respecto a los mismos, de-ban ser objeto de control metrológico en régimen de gestión indirecta de servicio público. Esta determina-ción se efectuará teniendo en cuenta la mayor eficacia en la prestación del servicio, así como la protección de los intereses económicos tanto de los titulares de los aparatos como de los consumidores y usuarios.

**Artículo 16.**– Reglas Generales para la gestión del servicio público.

Zerbitzu publikoaren kudeaketa lehiaketa publiko ireki bidez esleituko da, eta kontratacio arloan eskumeña duen organoak egingo du horretarako deialdia.

Zerbitzu publikoa kudeatzeko interesa dutenek administracio publikoen kontratuaren legean ezarrita dauden izaera orokorreko baldintza guztiak betetzeaz gain, beste hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Lehiaketaren oinarrian ezarritako baldintzak.
- b) Hurrengo artikulan ezarritako bateraezintasunen araubidea betetzen dutela egiaztatzea.
- c) Erregelamendu teknikoak ezarritako baldintza eta betekizunak egiaztatzea.
- d) 18. artikulan ezarritako baldintzak betetzen dituen laborategia izatea.

**17. artikulua.**— Bateraezintasunen araubidea.

Metrologia kontroleko zerbitzuaren kudeatzaileak zerbitzu publikoen kudeatzaileen bateraezintasuna araubide orokorraren menpe egongo dira, eta ezin izango dute inolako partehartzerik izan era honetako jardueretan:

- a) Metrologia kontrolaren menpe dauden neurketa-sistema, baliabide, aparailu eta tresnak fabrikatzen edo konpontzen diharduten jardueretan.
- b) Metrologia kontrolaren menpe dauden neurketa-sistema, baliabide, aparailu eta tresnen gaineko edozein merkataritza jardueretan.

**18. artikulua.**— Kudeatzaileen laborategiek bete beharreko baldintza teknikoak.

Laborategien proiektuek, obrak barne, laborategietako instalazioek eta ekipoek klausula administratiboen eta klausula teknikoen pleguetan ezarritako gutxienezko baldintzak bete beharko dituzte.

Neurketa tresna eta patroiek eta ekipoek honako baldintza guzti hauek bete beharko dituzte: klausula administratiboen eta klausula teknikoen pleguetan ezarritako baldintzak teknikoetan ezarritakoak; arlo horretan ezargarria den berariazko xedapenetan ezarritakoak; Espainiako Metrologia Zentroak emandako jarraibideetan ezarritakoak edo, azkenik, arlo horretan ezargarria den bestelakoetan ezarritakoak. Bestalde, baldintza guzti horiek betetzen direla egiaztatu beharko da, eta hori egiazatzeko entitate edo organo eskumendunak lutzatutako adostasun-agiria aurkeztu beharko da.

**19. artikulua.**— Erantzukizunen araubidea.

a) Empresa kudeatzailea izango da enpresak egindako egiaztapenen erantzulea. Beraz, enpresak estalita eduki beharko du enpresaren jardueraren ondorioz gerda daitekeen edozein erantzukizun zibil, eta 25.000.000 PTAKo abal bat aurkeztu beharko du.

La adjudicación de la gestión del servicio público se hará mediante concurso público abierto convocado por el órgano competente en materia de contratación.

Los interesados en la gestión del servicio público deberán reunir además de los requisitos establecidos, con carácter general, en la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, los siguientes:

- a) Los establecidos en las correspondientes bases del concurso.
- b) Acreditar el cumplimiento del régimen de incompatibilidades establecido en el artículo siguiente.
- c) Acreditar el cumplimiento de los requisitos y condiciones previstas en la correspondiente reglamentación técnica.
- d) Disponer de un laboratorio que reúna las condiciones establecidas en el artículo 18.

**Artículo 17.**— Régimen de incompatibilidades.

Los gestores del servicio de control metrológico, quedan sometidos al régimen general de incompatibilidades de los gestores de los servicios públicos, y en particular no podrán tener ningún tipo de participación en:

- a) Actividades de fabricación y reparación de instrumentos, aparatos, medios y sistemas de medida sometidos a control metrológico.
- b) Actividades de comercio, de cualquier tipo, sobre instrumentos, aparatos, medios y sistemas de medida sometidos a control metrológico.

**Artículo 18.**— Condiciones técnicas de los laboratorios de los gestores.

Los proyectos de los laboratorios, incluidos obras, instalaciones y equipos se ajustarán a las condiciones mínimas que se establezcan en los pliegos de cláusulas administrativas y de condiciones técnicas.

Los equipos, patrones e instrumentos de medida, cumplirán las especificaciones técnicas establecidas por los correspondientes pliegos de cláusulas administrativas y de condiciones técnicas, por las disposiciones específicas que les sean aplicables, por las instrucciones dictadas por el Centro Español de Metrología, o por cualquier otra que les sea de aplicación, debiendo acreditarse el cumplimiento de las mismas mediante Certificación de Conformidad a Normas por Organismo o Entidad competente.

**Artículo 19.**— Régimen de responsabilidades.

a) Las empresas gestoras, serán responsables de las verificaciones que realicen y, por tanto, deberán tener cubiertas las responsabilidades civiles que pudieran derivarse de su actuación, mediante la presentación de un aval por importe de 25.000.000 de pesetas.

b) Erantzukizunen araubidea klausula administratiboen eta klausula teknikoen pleguetan ezarriko da, eta egin behar den metrologia kontrolaren mugak eta modalitatearen araberakoa izango da.

c) Organo eskumendunak enpresa kudeatzaileari edozein datu edo txosten eskatuz gero, enpresak derri-gorrean bidali beharko dio eskatutakoa.

d) Enpresa kudeatzaileek industria gaietarako organo eskumendunarekin lankidetzan aritu beharko dira, eta organo hark eskatzen dizkien txosten edo jarduera guztiei erantzun beharko dizkiete.

#### *20. artikulua.— Kudeatzailearen kontrola.*

Industria gaietarako organo eskumendunak egoki ikusten dituen aldian-aldiko kontrol eta ikuskapenak egingo ditu, eta ikuskapen eta kontrol horien bidez egiaztatuko du ea entitate kudeatzaileak behar bezala betetzen dituen kudeaketa esleitu zitzainean eskatu zi-tzaizkion baldintzak eta betekizunak.

Ikusten bada enpresa kudeatzaileak aldatu egin di-tuela kudeaketa esleitu zitzakionean eskatutako bal-dintza eta betekizunak, kudeaketaren forma bertan be-hera utzi ahal izango da, eta hala jasota egongo da da-gokion klausula administratiboen pleguan.

#### *21. artikulua.— Araubide ekonomikoa.*

1.— Industria gaietarako organo eskumendunak eza-rriko ditu enpresa kudeatzaileek jasoko dituzten tari-fak metrologia kontroleko zerbitzuak eskauntzeagatik.

2.— Enpresa kudeatzaileak kanon bat ordaindu beharko dio esleipena ematen dion administrazioari. Kan-nonaren zenbatekoa kudeaketaren emakidan ezarriko da eta horren gaineko baldintza eta ezaugarriak klausula administratiboen eta baldintza teknikoen pleguetan ja-soko dira.

### V. KAPITULUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

#### *22. artikulua.— Zigor araubidea.*

1.— Dekretu honen ezarpen eremuko arau-hauste eta zigorrak metrologiari buruzko martxoaren 18ko 3/1985 Legean ezarritakoarekin bat datoz.

2.— Zigor-ahalmena erabiltzeko jardunbideari buruzko araubidea onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan ezarrirakoa bete beharko da zigor-prozedurak izapidetzeko.

3.— Egitura organikoak arautzen dituzten arauetan ezarriko da zeintzuk diren zigor-espedienteak hasteko eta ebazteko eskumena izango duten organoak.

b) En los pliegos de cláusulas administrativas y de condiciones técnicas se establecerán el régimen de responsabilidad según el alcance y la modalidad del control metrológico objeto de gestión.

c) Las empresas gestoras quedan obligadas a facilitar al órgano competente cuantos datos e informes les sean solicitados en relación con sus actividades.

d) Las empresas gestoras deberán colaborar y atender las solicitudes de informe o de actuación que le sean presentadas por el órgano competente en materia de industria.

#### *Artículo 20.— Control del gestor.*

Desde el órgano competente en materia de industria, se realizarán las inspecciones y controles periódicos que se consideren necesarios, para comprobar que la entidad gestora sigue cumpliendo los requisitos y condiciones que sirvieron de base para el otorgamiento de la gestión.

De acuerdo con lo establecido en el correspondiente pliego de condiciones, la forma de gestión podrá quedar sin efecto si se comprueba que se han modificado las condiciones o circunstancias bajo las cuales se otorgó.

#### *Artículo 21.— Régimen económico.*

1.— Las tarifas por servicios de control metrológico a percibir por las empresas gestoras serán fijadas mediante Orden del órgano competente en materia de industria.

2.— Las empresas gestoras deberán abonar, en su caso, un canon a la Administración concedente, que se fijará en el otorgamiento de la gestión y cuyas características y condiciones figurarán en los correspondientes pliegos de cláusulas administrativas y de condiciones técnicas.

### CAPÍTULO V INFRACCIONES Y SANCIONES

#### *Artículo 22.— Régimen sancionador.*

1.— Dentro del ámbito de aplicación del presente Decreto, el régimen de Infracciones y Sanciones, se ajustará a lo establecido en la Ley 3/1985, de 18 de marzo, de Metrología.

2.— Los procedimientos sancionadores se tramitarán de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora.

3.— Serán órganos competentes para la iniciación y resolución de los correspondientes expedientes aquellos que resulten serlo, en función de lo establecido en las correspondientes normas reguladoras de la estructura orgánica.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lebenengoa.**— Industria gaietan eskumena duen sailburuari Dekretu hau burutu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio.

**Bigarrena.**— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 20001eko otsailaren 27an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.**— Se faculta al Consejero competente en materia de industria, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

**Segunda.**— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de febrero de 2001.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

**Agintariak eta Langileria****Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak****OSASUN SAILA****Zk-1344**

60/2001 EBAZPENA, otsailaren 13koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren, José María Aguirre Arregui jaunak, berak hala eskatuta, Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Giza Baliabideen zuzendari izateari uzten diola aditzera ematen duena.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 31ko 829/1999 Ebazpenaren (irailaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian —177 zk.— argitaratua) bidez, José María Aguirre Arregui jauna Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Giza Baliabideen zuzendari izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, zuzendaritza nagusi honek hau

EBATZI DU:

**Lebenengo.**— José María Aguirre Arregui jauna, berak hala eskatu baitu, Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeko (Gipuzkoako Osasun Barrutia) Giza Baliabideen zuzendari lanpostutik kentzea eta, bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

**Autoridades y Personal****Nombramientos, Situaciones e Incidencias****DEPARTAMENTO DE SANIDAD****Nº-1344**

RESOLUCIÓN 60/2001, de 13 de febrero, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se declara el cese, a petición propia, de D. José María Aguirre Arregui como Director de Recursos Humanos de la Comarca Gipuzkoa Este, Área de Salud de Gipuzkoa.

Mediante Resolución n.º 829/1999, de 31 de agosto, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 177, de 15 de septiembre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se nombró a D. José María Aguirre Arregui Director de Recursos Humanos del Comarca Gipuzkoa Este, Área de Salud de Gipuzkoa.

Vista la Ley 8/1997, de 26 de junio, el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre y demás disposiciones de pertinente aplicación, esta Dirección General

RESUELVE:

**Primero.**— Cesar, a petición propia, a D. José María Aguirre Arregui como Director de Recursos Humanos del Comarca Gipuzkoa Este, Área de Salud de Gipuzkoa, agradeciéndole los servicios prestados.